

Eako UDALA

EAKO UDALEKO "ZERBITZU ANITZETARAKO LANGILEEN LAN-POLTSA" OSATZEKO HAUTAKETA-PROBAK ARAUTZEKO OINARRIAK ETA DEIALDIA

LEHENENGOA.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da Eako Udalerako zerbitzu anitzetarako lan-poltsa eratzea, zertarako eta hutsik dauden lanpostuak, deiturikoen antzeko ezaugarriak dituzten unean uneko lanpostuen ordezkioak edo zerbitzuaren aldi baterako beharrak betetzeko, behin behineko langile edo aldi baterako lan kontratazioko langileak izendatzea.

Lan-poltsa hau eratzean eta kudeatzean, honako printzipio hauek errespetatuko dira:

- Deialdiaren eta lan-poltsan sartzeko betekizunen publizitatea.
- Berdintasuna, enplegu publikoa eskuratzeko baldintza orokorren eta lanpostuen betekizunen arabera.
- Merezimendua eta gaitasuna, izangaiak poltsan sartzeko erabilitako irizpideak, eta bertan lorturiko ordena baldintzatzen dutenak.
- Lan-poltsak eratze eta kudeatzeko prozesuaren kudeaketaren gardentasuna.

Hona hemen lanpostuen definizioak:

- Postua: Zerbitzu anitzetarako langilea.
- Eskala: Administrazio berezia.
- Azpieskala. Zerbitzu bereziak.
- Taldea: L.T. (Lanbide taldekatzea).
- Hizkuntza-eskakizuna: Nahitaezkoa 1. HE. (derrigortasun data beteta).

Aukeraketa-prozesua deitu da, eskuratze askeko txandan, "Lehiaketa-Oposizio" sistemaren bitartez.

Lan-poltsa osatzeko edota eratzen dituzten pertsonak ez dute eskubide ekonomikorik izango harik eta kontratuak egiten diren arte.

Baldin eta pertsonala ordezkatzeko kontratazioa egiten bada, aukeraturiko pertsonekin izenpetuko den kontratuak bete egingo ditu Eako dalaren beharrak, aldi baterako lizentziengatik edo bajengatik, eta lizentzia horiek betetzeko beharrezko iraunaldia izango dute.



BIGARRENA.- Funtzioak.

Lan-poltsa honen xedeko lanpostuen funtzioak dira:

Jakinarazpenak egiteko eta udal zerbitzuak eskaini beharreko konponketa, mantenu, garbiketa, kontserbazio eta bestelako esku-lanetarako funtzioak eta /edo lanak.

Eako Udalak berak zerbitzurako urtero ezarriko duen lanaldia izango da, eta nolana ere, lanpostuaren izaera eta behar zehatzak beteko dira.

Eako Udalak oro har "Obra eta Zerbitzu Brigadarentzat" ezarritakoak izango dira lan-ordutegia eta egutegia.

HIRUGARRENA.- Hautagaien betekizunak.

1.- Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

a) Espainiako edo Europar Batasuneko kide den estaturen bateko herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango dute, bata ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideek, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere eskontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

Era berean, laneko pertsonala izanik, Espainiako estatuan bizi diren eta aurreko leerroaldeetan sartu ez diren atzerritarrek ere parte hartu ahal izango dute. Aukeratzen badira, administrazio baimenaren jabe izan beharko dute kontratuaren xedeko jardura egiteko, kontratua gauzatu baino lehen.

b) Eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik, 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiro-adina ez izatea.

c) Titulazio akademikoa: Eskola-egiaztagiria edo baliokidea izatea, edo hura lortzeko eskubideak ordaindu izana eskabideak aurkezteko epea amaitzean.



Eako UDALA

Administrazio eskudunak horretarako emandako egiaztagiriaren bidez aurkeztu beharko du izangaiak baliokidetzatza. Ildo berean, Espainiako administrazio eskudunaren homologazioak egiaztatu beharko dira atzerrian emandako titulazioei dagokienez.

d) Lanpostuei dagozkien atazak edo funtzioak normaltasunez betetzeko gaitasuna funtzionala izatea.

e) Edozein Herri Administrazioaren zerbitzuetatik edota autonomia erkidegoetako konstituzio edo estatutu-organoetatik disziplina –espedita bidez baztertua ez egotea edota ebazpen judizial bidez desgaitua absolutu edo berezirik ez edukitzea lanpostu edo kargu publikoetarako, funtzionario-kidego edo eskalara sartzeko, edota lan-kontratudun behargin moduan egiten zituen edo baztertua edo desgaitua izan zen antzeko funtzioak burutzeko. Beste estatu bateko herritarra bada, desgaitua edo horren pareko egoera batean ez egotea, eta bere Estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen izango litzatekeen disziplinako zehazpenik edo horren parekorik ez izatea

f) Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko indarreko araudian aurreikita dauden ezgaitasun edo bateraezintasunaren legezko kausaren batean ez egotea.

g) Funtzioak betetzea galarazten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea, Mediku Ziurtagiri Ofizialaren bidez egiaztatua.

h) B motako gidabaimena.

2.- Deialdian parte hartu nahi dutenek, eskabideak aurkezteko epea amaitzean, eskatutako betekizun guztiak bete beharko dituzte, eta hautaketa-prozesuak iraun bitartean mantendu.

LAUGARRENA.- Eskaerak eta onarpenak.

Izangaiek deialdien oinarrian eskaturiko baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi behar dute eskaeretan, eta eskaera horiek Alkatetzara zuzenduko dira eta Eako Udalaren egoitzan (Eako Donibane enparantzako 2 zk. Bizkaia) aurkeztuko dira, behar bezala beteta, 20 egun naturaleko epean, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Aurkezteko azken eguna ez bada balioduna, egokia den hurrengo egun baliodunean aurkeztu ahal izango da.

Eako Udalaren webgunean emango den eredu ofiziala beteta egingo dira eskaerak "www.eakoudala.net" helbidean eta Eako Udalaren Idazkaritza Sailean.



Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan zehaztutako lekuetako edozeinetan ere aurkez daitezke.

Postetxeen bitartez aurkeztutako eskabideak gutun-azal ireki baten barnean egon beharko dira, postako langileek ziurtatu aurretik data eta zigilua jar ditzan horietan.

Izangai guztiek eskaeran emandako informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta aukeraketa-prozesua kudeatzeko eta administrazio honetan lan-poltsa honetako kontrataziorako sortuko den lan-poltsa kudeatzeko baino ez dira erabiliko datuok. Fitxategi horren erabilerak eta funtzionamenduak bete egin beharko dituzte Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eta herri titularitateko datu pertsonalen datu-fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen ezarpenak.

Eskaeretan hau agertu beharko da:

- a) Datu pertsonal osoak.
- b) Oposizio faseko ariketak egiteko erabili nahi den hizkuntza ofiziala, hau da, euskara ala gaztelania.
- c) Urritasunak dituzten pertsonak hori agerrarazi behar izango dute, bai eta, hala badagokie, hautaketa-probak egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten egokitzapen teknikoak ere.
- d) Izangaiek deialdiaren oinarrietan banan-banan aipaturiko baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela agerrarazi behar dute eskaerak aurkezteko epea amaitzean.
- e) Alegaturiko merezimenduen zerrenda dakarren adierazpena erantsiko dute.

Eskabidearekin batera, honako hauek ere aurkeztuko dira:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia edo atzerritarren kasuan, agiri baliokidearen fotokopia aurkeztu beharko da (konpultsatu gabe).

Argudiatutako merituen egiaztatzeak agiriak soilik eskatuko dira aurkez dakizkiela bere frogantzaren efekturako baita ondoko balioespenerako oposizio-fasea gainditu duten hautagaiei.

Ezin izango dira inola ere baloratu aurkezteko epean behar bezala alegatu eta egiaztatu ez diren merezimenduak.



Eako UDALA

Ehuneko 33ko edo handiagoko urritasun maila duten pertsonak hala agerrarazi behar izango dute, bai eta, hala badagokie, hautaketa-probak egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten egokitzapen teknikoak ere.

Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Eako Udaleko Alkatetzak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du hurrengo 15 eguneko epean. Ebazpen hori Eako Udalaren iragarki edota ediktu taulan, bere webgunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratuko da.

Zerrenda horretan, baztertutako izangaiei dagokienez, baztertuak izateko kausak adieraziko dira, eta 10 egun balioduneko epea emango zaie bazterketa horren aurka egiteko eta bazterketa eragin duten hutsegiteak konpontzeko edo agiriak aurkezteko (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 71. artikuluan ezarritakoaren arabera). Erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, hautagaiak onartu eta baztertzeko ebazpena onetsi duen agintaritzak ebatzi beharko ditu aurkeztutako erreklamazioak.

Erreklamazioarik egongo ez balitz, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira, automatikoki. Erreklamazioak egonez gero, behin betiko zerrenda onartuko duen beste ebazpen baten bidez onartu edo gaitzetsiko dira. Zerrenda hori lehengoaren modu berean argitaratuko da.

Halaber, behin betiko zerrendetan bazterturiko pertsonak, zerrenden kontrako erreklamazioa aurkeztu badute epearen barruan, probak egitera aurkez daitezke kautelazko neurri legez, betiere bazterketaren kontrako errekurtsio egokia aurkeztu izana egiaztatzen badute eta egun horretarako erreskurtsioa ebatzi ez bada.

Halaber, behin betiko zerrendetan bazterturiko pertsonak probak egitera aurkez daitezke kautelazko neurri legez, betiere bazterketaren kontrako errekurtsio egokia aurkeztu izana egiaztatzen badute eta egun horretarako errekurtsioa ebatzi ez bada.

Behin-behineko zerrendekin batera, oposizio faseetako lehen ariketen eguna, ordua eta tokia argitaratuko dira, baita Kalifikazio Epaimahaiaren eraketa ere (titularrak nahiz ordezkioak). Ondorengo ariketak Eako Udalaren iragarki taulan eta webguneak argitaratuko dira Kalifikazio Epaimahaiak interesatuei jakinarazteko.

BOSGARRENA.- Kalifikazio Mahaia.



Hautaketa-organoa kide anitzekoa izango da, eta horre osatera kideen inpartzialtasun eta profesionaltasunaren printzipioetara egokitu beharko da; era berean, emakume eta gizonen arteko berdintasunera joko da.

Kalifikazio Epaimahaiak, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 5/1989 Legearen 31. artikuluan eta urriaren 30eko Legegintzako 5/2015 Errege Dekretuaren 60. artikuluan araututakoaren arabera, Euskal Funtzio Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateratu jarraian berridazten da:

Epaimahaiburu bat, Idazkari bat eta lau kide izango ditu.

Era berean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) kide bat ere izango du euskara proba baloratzeko.

Epaimahaiak bere lanetan aholkulari adituak sartzea xedatu ahal izango du hautaketa-prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulariek, hala ere, euren espezialitate teknikoetan baino ez dute jardungo, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, aholkularitza eta lankidetzat teknikoa eskainiz euren espezialitateen jardunean. Hizat izango dute, baina botorik ez.

Epaimahaietako titularrek, epaimahaiburuak, idazkariak eta gainerako kideek, euren ordezkotzat izango dituzte; ezin izango da kargua eskuordetu eta epaimahaia ezin izango da eratu eta ezin izango du jardun, gutxienez, kideen erdia —titularrak edo ordezkotzat— baino gehiago ez badaude.

Epaimahaietako titularrek, epaimahaiburuak, idazkariak eta gainerako kideek, euren ordezkotzat izango dituzte; ezin izango da kargua eskuordetu eta epaimahaia ezin izango da eratu eta ezin izango du jardun, gutxienez, kideen erdia —titularrak edo ordezkotzat—baino gehiago ez badaude.

Epaimahaikide guztiek edukiko dituzte hitza eta botoa, idazkariak izan ezik; idazkariak ez du botorik edukiko. Epaimahaiaren erabakiak bertaraturikoen botoen gehinegoarekin hartuko dira, eta berdinketa badago, epaimahaiburuaren botoak erabakiko du. Kide anitzeko organoko kide titularrak ez badaude edo gaixorik badaude eta, oro har, justifikaturiko kausaren bat dagoenean, ordezkotzat hartuko dute haien lekua. Epaimahaibururik ez badago, kanpoan badago, gaixo badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago, ordezkotzat hartuko du bere lekua, eta ordezkotzat hori ez badago, epaimahaiko kideen artean hierarkia-maila, antzinatea eta adin handiena duenak —hurrenkera horretan—. Idazkaririk ez badago, kanpoan badago, edo gaixorik badago, ordezkotzat hartuko du bere lekua aldi baterako, edo hala ez bada, idazkariak berak erabakiko du ordezkotzat nor izango den.



Eako UDALA

Epaimahaiko kide guztiek onartuak izateko baldintza gisa eskaturiko titulu akademikoaren eta hautaketaren xedeko lanpostuaren ezagutza arloaren maila berdinekoa edo handiagoa izan behar dute.

Kalifikazio Epaimahaiak ahalmena du agertzen diren zalantzak ebazteko eta lehiaketa-oposizioa behar bezala egiteko eta ordena onari eusteko beharrezko erabakiak hartzeko oinarri hauetan ezarrita ez dagoenari dagokionez.

Epaimahai osatzen duten titular eta ordezkoen izenak azaltzen dituen zerrenda argitaratuko da, hautaketa-prozesurako onartu eta baztertu diren pertsonen zerrendekin batera, epaimahaiburuak izendatu ostena.

Jakinazpen eta gainerako gorabeheren ondorioetarako, Eako Udalaren Idazkaritza Sailean izango du egoitza Kalifikazio Epaimahaiak, Donibane enparantzako 2. zenbakia. Ea-Bizkaia.

SEIGARRENA.- Hautaketa-prozesuaren hasiera eta garapena.

Deialdi bakarrean deituko dira oposizioan parte hartzen dutenak, eta oposiziogileetako bat deitua izan denean edozein ariketatara ez aurkezteak automatikoki ekarriko du ariketa berean parte hartzeko eskubidea galtzea.

Kalifikazio Epaimahaiak edonoiz eskatu ahal izango die hautagaiei behar den moduan nor diren jakitera eman dezaten. Horretarako, hautagaiek NAN agiria eraman beharko dute oposizioko ariketa guztietara, edo bestela, epaimahaiaren iritziz euren nortasuna behar den moduan egiaztatzen duen beste agiriren bat (pasaportea, gidabaimena...).

Prozeduraren edozein momentutan epaimahaiak hautagai batek deialdian eskatutako betekizunak betetzen ez dituela jakiten badu, hautagaia baztertuko da, interesdunari entzunaldia eman ostean. Egun horretan bertan horren berri emango zaio hautaketa prozesua deitu duen agintaritzari.

Probak hasitakoan, hurrengo iragarkiak Eako Udalaren iragarki taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko dira, eta hurrengo ariketa egiteko eguna eta ordua adieraziko dira bertan gutxienez 48 ordu lehenago. Ariketa bat amaitu eta hurrengoa hasi artean gutxienez 72 orduko tarte egongo da, salbu eta ariketa egin behar duten hautagatziek adoz ez daudela adierazten badute.

ZAZPIGARRENA.- Hautaketa-prozedura.

Hautagaiak oposizio-lehiaketa sistemaren bidez hautatuko dira.



Eako UDALA

Oposizio fasea gainditu duten hautagaiak soilik baloratuko zaie lehiaketa fasea.

- Lehiaketa fasea: (35 puntu)

Lehiaketa fasean ez da inor baztertuko, eta ezin izango da kontuan hartu oposizio faseko probak gainditzeko

Lehiaketako fasea hautagaiak alegatu eta ziurtatu dituzten merezimenduen azterketa eta balorazioa egitea izango da, eta deialdiko berariazko baremoen arabera eurretan bakoitzari dagozkion puntuak hautagai bakoitzari esleituta egingo da. Ezin izango dira inola ere baloratu aurkezteko epean behar bezala alegatu eta egiaztatu ez diren merezimenduak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte lortutako merezimenduak bakarrik zenbatuko dira.

Hauxe da deialdi honetarako merezimenduen baremoa:

1. Lanbide esperientzia: 15 puntu.


Administrazio Publikoan zein enpresa pribatuan, zerbitzu anitzetarako langile edo antzerako postuan, argiketari, iturgintza, igeltserotza, eraikuntza edo mekanika sektoreetan edo antzerako sailetan, deialdiko lanpostuko antzerako betebeharretan izandako esperientziagatik: 0,25 puntu lan egindako hilabete oso bakoitzeko, gehienez 15 puntu.

Ondorio horietarako, abenduaren 26ko 70/1978 Legean agertzen direnak hartzen dira herri administrazioetat, aurretik herri administrazioan emandako zerbitzua aintzatestea dakartenak.

Eako Udalean emandako zerbitzuak alegatu egin beharko dira, baina interesatuek ez dute zertan egiaztatu. Administrazio horrek zenbatuko ditu bere kabuz. Gainerako Herri Administrazioetan egindako zerbitzuen denbora horietako bakoitzak horretarako ezarrita daukan eremuan egiaztatuko da. Edonola ere, bereizi egin behar dira lan egindako aldiak, zein Kidego edo Eskalatan, Azpieskalatan eta Klase edo Kategoriatan lan egin den eta lanaldiaren portzentaia zehaztuta.

Enpresa pribatuan izandako lanbide esperientzia egiaztatzeke, nahitaez aurkeztu beharko da lan-bizitzaren ziurtagiria, baita hautagaiak izan duen lanpostua eta bete dituen eginkizunak egiaztatzen dituzten kontratuen kopia.

2. Formakuntza: 12 puntu.



Eako UDALA

2.1.- Argiketari, iturgintza, igeltserotza, eraikuntza, lorezaintza edo mekanikari loturiko formakuntza profesionaleko titulazioak (2 puntu FPko gradu ertaineko titulazio bakoitzeko eta 3 puntu FPko goi-mailako graduen titulazio bakoitzeko. Gehienez 10 puntu.

2.2.- Deialdian eskainitako postuen betebeharrei zuzenean lotuta, Administrazio Publikoak edo Eskola Ofizialek eskainitako formakuntza, ikastaro, jardunaldi edo antzerakoak edo laneko higie-ne eta segurtasunarekin. Gehienez 2 puntu.

- 30 ordu arte: 0,10 puntos por curso.
- 31tik 100 ordura: 0,20 puntos por curso.
- 101tik 300 ordura: 0,40 puntos por curso.
- 301 ordutik gora: 0,50 puntos por curso.

3. Beste tituluak: Gidabaimena. Gehienez 3 puntu.

- C.1 motako gidabaimena: puntu 1.
- C motako gidabaimenaren jabea izatea: 1 puntu.
- B.E motako gidabaimenaren jabea izatea: 1 puntu.

4. 2. Hizkuntza-Eskakizuna edo handiagoa: 5 puntu.

Epaimahaia oposizio-fasean gairiditu dituzten hautagaien merituak balioetsiko ditu soilik.

- Oposizio fasea: 65 puntu.

Oposizio faseak honako proba hauek izango ditu:

Oposizio fasean hiru (3) ariketa egingo dira. Hirurak ere nahitaezkoak eta baztertzaileak dira:

1. Lehen ariketa: Lanpostua betetzeko ezinbesteko eta berezko trebetasunak ebaluatzeko ariketa teorikoa.

Nahitaezkoa eta baztertzailea izango da hautagai guztientzat, hautagaiaren profil teknikoa lanpostuari zein neurritan egokitzen zaion ebaluatzeko. Ariketa honi 30 puntu emango zaizkio gehienez eta gairiditzeko gutxienez 15 lortu beharko dira.

Guztiantzako gai-zerrenda (I. Eranskina) ebaluatzeko izango da proba.



Eako UDALA

Kalifikazio Epaimahaiak erabakiko du egin beharreko proba eredua (test erako galdetegia, gai bat edo hainbat garatzea, etab.) eta, hala denean, erantzun okerrengatik puntuak deskontatzea.

2. Bigarrena: Lanpostua betetzeko ezinbesteko eta berezko trebetasunak ebaluatzeko ariketa teorikoak.

Epaimahaiaren irizpidearen arabera, zerbitzu anitzetarako langileen postuaren funtzioekin lotutako proba praktikoa bat edo hainbat egingo dira, Eako Udalak egun dituen postuei dagozkienak hain zuzen.

Gehienez 35 puntu lortu ahal izango dira proba honetan. Prozesutik baztertuta geldituko dira gutxienez guztira 17,5 puntu lortzen ez dutenak.

Zehazkiago, eta epaimahaiak har dezakeen beste edozein erabakiri kalterik egin gabe, honako hauen ingurukoa izan daiteke proba praktikoa:

Konponketa, mantenu, zaintza edo udal zerbitzuek eskatutako bestelako lanek makinak erabiltzea eska dezake eta horretarako, hautagaiek, aproposak diren oinetako eta arropak ekarri beharko dituzte.

Proba hau egiteko, ariketak egiteko beharrezko elementu guztiak emango zaizkie hautagaiei. Lanak egiteko trebetasuna, zehaztasuna, ezagutza eta zuzentasun tekniko baloratuko dira gehienbat ariketa honetan.

Kalifikazio Epaimahaiak, hala denean, zehazturiko proben ordena aldatu ahal izango du, baita egun berean proba bat baino gehiago egitea ere.

3. Hirugarren ariketa: Euskara proba.

Euskarazko 1. Hizkuntza-eskakizuna egiaztatze (1.HE) azterketa izango da, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) horretarako emandako jarraibideen arabera, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.1. artikuluan ezarritakoa dela bide.

Ariketa hau "GAI" edo "EZ GAI" bezala kalifikatuko da eta ez gairituak baztertuak geratuko dira.

1. Hizkuntza-eskakizunaren jabe izatea egiaztatu ahal izango da euskara maila egiaztatzen duen edozein titulu edo agiri aurkeztuta, Hizkuntzetarako Erreferentziako Europako Eremu Erkidearen B-1 mailaren edo handiagoaren baliokidea (B-2, C-1 eta C-2).

Euskara azterketa egitetik salbuetsita egongo dira euskara maila egiaztatze probak baino lehen, aurreko lerroaldean aipaturiko ziurtagiri edo tituluetako bat epaimahaiaren aurrean aurkezten dutenak.



ZORTZIGARRENA.- Ariketa berrikustea eta kopia eskuratzea.

Eginiko ariketa bakoitza berrikusteko eskaerak soilik onartuko dira hamar laneguneko epean, ariketan lorturiko emaitzak argitaratzen diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Halaber, lehiaketa fasean lorturiko puntuazioa berrikusketako eskaerak soilik onartuko dira hamar laneguneko epearen barruan, lehiaketa fasean lorturiko emaitzak argitaratzen diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Ariketen nahiz lehiaketa fasean lorturiko puntuazioaren berrikuspena soilik kalifikazioaren arrazoiei buruzko informazioa emateko funtzioa betetzeko izango du, hautaketa epamahai honek hartutako irizpideekin bat etorritik. Ezin izango da aldatu izapide honetan, salbu eta akats aritmetikoak edo izatezko akatsak ikusten badira.

Idatziz aurkeztuko dira berrikusteko eskaerak Herri Administrazioen Arubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eskaerak aurkezteko ezarritako edozein tokitan.


Oposizio faseko ariketak nahiz lehiaketa fasean lorturiko puntuazioa berrikusteko eskaerak izapidetzeko, horretarako eginiko eredu ofiziala bete beharko da, izangaiak Eako Udalaren webgunean eskuragarri izango dutena hain zuzen.

Eginiko ariketak eta lehiaketa fasean lorturiko puntuazioa berrikusteko lehen lehen aldian ezarritako epeak amaitutakoan, balizko alegazioak ebatzi eta behin betiko zerrenda argitaratuko du epeimahiak, guztizko puntuazio ordenaren arabera. Epe horiek igarotzen badira eta hautaketa-prozesuako izangaiak alegazioak aurkeztu ez badituzte, behin betikotzat joko da hautaketa-probaren azken kalifikazioekin "Iragarki-Taula" eta Eako Udalaren "webgunean" eginiko lehen argitalpena.

Halaber, izangaiak aukeraketa proban eginiko azterketaren kopia lortzeko eskaera ere idatziz aurkeztu beharko da arestian aipaturiko legeriarekin bat etorritik, eta azterketak berrikusteko epea amaitzen den arte baizik ez da onartuko.

BEDERATZIGARRENA.- Kalifikazio Epaimahaiak gaituen zerrendari buruz eginiko proposamena.

Azken kalifikazioa oposizio-lehiaketako fase bietan lortutako puntuazioen batuketak emango du eta emaitza honek zehaztuko du Lan Poltsarako izangaien hurrenkera.



Eako UDALA

Ariketen kalifikazioa amaitutakoan, behin kreditatu eta balioetsita egokiro aurkeztutako merituak, Epaimahaiak proposaturiko hautagaien zerrenda argitaratuko da.

Berdinketa badago, oposizio fasean lorturiko puntuazio handienaren arabera ezarriko da ordena. Berdinketak jarraitzen badu, lehiaketa fasean lorturiko puntuaziora joko da. Berdinketak jarraitzen badu, zozketara joko da.

Eako Udalaren iragarki taulan eta webgunean iragarkia jarrita argitaratuko dira ariketa bakoitzaren puntuazioak.

Hautaketa prozesuaren ondoriozko gaindituen zerrendak baliozkoak izango dira aldi baterako laneko pertsonal izendatzeko baldin eta indarreko araudian ezarritako kasuak gertatzen badira; Eako Udalaren aldi baterako zerbiztuak emateko lan-poltsan sartuko dira.

HAMARGARRENA.- Izendapena, proba-aldia eta prestakuntza.

Hautaketa prozesuan aurkeztu eta hautaketa probako oposizio fasea gainditu duten izangaiekin osatuko da lan-poltsa, eta horretarako, lehentasun ordena ezarriko da proba bakoitzean lorturiko azken puntuaren arabera, betiere "oposizio fasean" eta "lehiaketa fasean" lorturiko puntuazioak batu ondoren.

Lan-poltsaren helburua izango da Eako Udalaren aldi baterako lan beharrak betetzeko hautagaiak aukeratzea, aldi baterako lan kontratazioarekin, betiere enplegatu berriak sartu behar badira eta bete beharreko lanpostua deialdi honen xedekoaren antzekoa bada.


Egoera hauetako batean egongo dira "Lan-poltsan" sartutako hautagaiak:

- "Libre edo lanerako prest".
- "Etenaldian".

Lan-poltsan "libre edo lanerako prest" egoeran dauden hautagaiei baino ez zaie deituko.

Baldin eta Eako Udalaren beharrak sortzen badira eta lan-poltsaren bidez bete behar badira, eskaera egingo zaio hautagaiari hamar laneguneko epean aurkez ditzala deialdiaren oinarrietako baldintzak eta aplikatu beharreko araudian ezarritako gainerakoak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak.

Izangaiekin telefono edo telematika bidez harremanetan jartzeko gehienez hiru ahalegin egingo dira bi eguneko epean.



Eako UDALA

Deitutako hautagaiak onartu egin beharko du proposamena, eta ukatuz gero, zioa justifikatu beharko du idatziz. Hartara, zerrendako lehentasun ordena berean mantenduko da eta, bestela behin betiko baja emango zaio lan-poltsan.

Oro har, hauexek aurkeztu beharko dira:

1. Nortasun Agiri Nazionalaren edo agiri baliokidearen fotokopia konpultsatua. Bertan, identitatea, nazinalitatea eta jaioteguna azalduko dira.

Atzerritarra izanez gero, Agiri bidez egiaztatu beharko da oinarriko betekizunak betetzen direla.

2. Tituluaren fotokopia konpultsatua eta titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren egiaztatzea. Ezinbestekoa da lanpostua eskuratzeko

3. Eako Udalak zehaztutako zerbitzu medikuek egindako osasun ziurtagiria, eginkizunak betetzeko gaixotasunik eta akats fisiko eta psikikorik ez duela egiaztatzea.

4. Diziplinazko espedientearen ondorioz edozein administrazio publikotan zerbitzutik kanpo utzi ez dutela eta eginkizun publikoak betearazteko ezgaituta ez dagoela adierazteko aitortpena.

Era berean, atzerritarrek egiaztatu egin beharko dute euren estatuan funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplinazko zehapenaren edo kondena penalaren mende ez daudela.

5. Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitakoa kontuan hartuta, bateraezintasunagatiko legezko auziren baten mende ez dagoela adierazteko aitortpena.

6. Deialdi berezian eskatutako gainerako betekizun berezien agiri bidezko egiaztatpena.

Baldin eta epe horretan, eta ezinbestean ez bada, agiria aurkezen ez badute edo eskaturiko baldintzak betetzen ez dituela egiaztatzen bada, ezin izango dira izendatu eta baliorik gabe geldituko dira haien jarduketa guztiak, eskabidean gezurrezko datuak emateagatik izan litekeen erantzunkizunari kalterik egin gabe.

Baldin eta hautagaia baztertu egin bada, zerrendako hurrengo gaitutako zerrendan sartzea proposatu ahal izango du Kalifikazio Epaimahaiak, betiere hautaketa probak gaitutu baditu eta hautaketa probetan lorturiko ordena berean.



Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, aldi baterako lan kontratua egingo da Eako Udalaren Obra eta Zerbitzu Sailerako. Kontratuak hilabeteko proba-aldia izango du.

Kontratua amaitutakoan, ofiziozko lan-poltsan sartuko da berriro pertsona hautatua, hasieran zuen ordenan, eta berriz ere noiz deituko zain egongo da.

HAMAIKAGARRENA.- Aktak.

Epaimahaiko idazkariak epaimahaiaren jardueren aktak idatziko ditu, eta bertan, zuzenketa irizpideak, hautagaien emaitza partzialak eta azken emaitzak, hautatutako pertsonari buruzko proposamena, gertatutako gorabeherak eta hautaketa-prozesuko beste inguruabar garrantzitsuak azalduko dira gutxienez.

HAMABIGARRENA.- Gorabeherak.

Kalifikazio Epaimahaiak ahalmena du agertzen diren zalantzak ebazteko eta lehiaketa-oposizioa behar bezala egiteko eta ordena onari eusteko beharrezko erabakiak hartzeko oinarri hauetan ezarrita ez dagoenari dagokionez.


HAMAHIRUGARRENA.- Kontra egitea.

Deialdiaren, oinarrien eta oinarri horietatik eta epaimahaiaren jardueratik ondorioztatu daitezkeen administrazio-ekintza guztien kontra egin dezakete Interesdunek, Herri Administrazio prozedura Erkidearen indarreko Legean zehaztutako kasuetan eta bertan ezarritako moduan.

Ean, 2016ko maiatzaren 9an.

Eako Udaleko Alkatea


Iratxe Arriola Alzola



Eako UDALA

I. ERANSKINA.- GUZTIONTZAKO GAI-ZERRENDA

1. Ea udalerraren ezagutza: Kaleak, herrirako sarbideak, landa bideak, kale-izendegiak, auzoak eta baserriak. Garraio eta hornikuntza azpiegiturak. Eraikuntza publikoak.
2. Ea udalerraren ezagutza: Orografia, geografia, parajeak eta inguruko mendiak, ibai eta errekek.
3. Ea udalerraren ezagutza: Jarduera kultural eta jaialdi adierazgarriak. Monumentu eta interesguneak. Herriko biztanleriari buruzko datuak. Ea udalerriko historia.
4. Jakinarazpen administratiboei buruzko erregimena.
5. Eraikuntza, obra zibila, elektrikari, iturgintza eta igeltserotza.
6. Eraikinen eta kale altzarien mantenu eta kontserbazioa. Jarduera prebentibo eta zuzentzaileak, irizpideak eta lehentaunak. Mantenua, matxurak eta zerbitzuen kontserbazioa eta udal sare publikoak: Edateko ura, saneamendua, argiteria, etab. Kontzeptu orokorrak.



Eako UDALA

**EAKO UDALEKO "ZERBITZU ANITZETARAKO LAN-POLTSA" SORTZEKO LEHIAKETA
OPOSIZIOAN AURKEZTEKO ESKAERA-ORRIA**

1.- DATU PERTSONALAK:

Lehenengo abizena	Bigarren abizena	Izena	
NAN	Jaiotze data	Telefonoak	
Helbidea		Herria eta lurraldea	Posta Kodea

2.- FORMAKUNTZA:

Deialdian eskaturiko titulu akademikoa:


Titulua:

3.- ESPERIENTZIA (Lehiaketa fasea):

Sartze-data	Uzte-data	Administrazio edo enpresa	Izandako lanpostua

4.- ADIERAZI ZEIN HIZKUNTZATAN EGIN NAHI DITUZUN ARIKETAK:

- Euskara
- Gaztelania



Eako UDALA

5.- ESKABIDE HONEKIN BATERA AURKEZTURIKO AGIRIAK.

- NAN fotokopia
- Deialdian parte hartzeko eskaturiko tituluaren fotokopia konpultsatua.
- Eskaturiko 1.Hizkuntza eskakizunaren titulu konpultsatua egiaztagiria, edo hala denean, baliokidearena.
- B gidabaimenaren fotokopia.

Behean sinatzen duenak aukeraketa-prozesuan onartua izatea ESKATZEN du, eta aldi berean adierazten du egiazkoak direla eskabidean agertzen diren datuak eta deialdiaren oinarriak eskaturiko baldintza guztiak betetzen dituela. Horretarako, agiri originalak aurkeztuko ditu eskatzen zaionean.

Ean, _____(e)ko, _____(a)ren _____(a)n

Sin.: